

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1212

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 2koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskadiko Dokumentu eta Artxiboen lege-aurreproiektuaren entzunaldi-izapideak egiteko eta proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikulua xedatzen duenez, «Herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira».

Aipaturiko lege-proiektuaren onarpenak herri-administrazioei eragingo die nagusiki, dokumentu publikoak eta horiek administratzeko sistemak arautuko dituen neurrian, baina eragina izango du, baita ere, partikularrengan, dokumentu-ondareaz eta dokumentaziorako sarbideaz diharduelako.

Hori dela-eta, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluaekin bat etorritz, aipatutako agindu-proiektua jendaurrean jartzen da, eta, horretarako, hogeit egun balioduneko epea nahikoa dela jotzen da; epe hori iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Azaldukoagatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 6. e) eta 25 artikuluen arabera,

EBAZTEN DUT:

1.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hogeit egun balioduneko epe batez, entzunaldia egitea eta jendaurrean jartzea Euskadiko Dokumentu eta Artxiboen lege-aurreproiektua.

2.– Bidezko interesa duten pertsona fisiko eta juridikoek, publiko edo pribatuek, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren egoitzan (Donostia kalea 1, 01010 PK, Gasteiz; tel.: 945 01 94 70) eta Jaurlearitzako egoitza elektronikoaren iragarki taulan, euskadi.net, kontsultatu ahal izango dute Euskadiko Dokumentu eta Artxiboen lege-aurreproiektuaren edukia, eta egokitze jotako alegazio, dokumentu eta egiaztagiriak aurkeztu ahal izango dituzte epe horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 2a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.